


Euskal AEko industria-prezioak % 0,1 jaitsi dira 2021eko maiatzean aurreko hilaren aldean

2020ko maiatzaren aldean, berriz, industriako prezioek % 6,0 egin dute gora

Eustatek landutako datuen arabera, Euskal AEko industria-prezioak % 0,1 jaitsi dira 2021eko maiatzean aurreko hilaren aldean. Maiatzeko urte arteko tasa, zeinek azken hamabi hilabeteetan industria-prezioek izandako aldakuntza laburbiltzen duen, % 6,0koa izan da.

Euskal AEko industria-prezioen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Azterketa xeheago batek agerian uzten du ezen 2021eko maiatzean sektore hauek izan dituztela prezioetan hazkunderik nabarmenenak aurreko hilaren aldean: *Erauzketa-industriak* (% 4,5), *Produktu informatiko, elektroniko eta optikoen fabrikazioa* (% 2,7) eta *Zurgintza, papera eta arte grafikoak* (% 2,5). Prezioetako hil arteko jaitsierarik handienak, aldiz, honako sektore hauek izan dituzte: *Garraio-materialaren fabrikazioa* (% 3,2 behera), *Metalurgia eta produktu metalikoak* (% 0,5eko jaitsiera) eta *Makineriaren eta ekipoen fabrikazioa* (% 0,4 behera).

Ondasunen helburu ekonomikoaren arabera sailkapenari jarraituz, prezioen aldakuntzak askotarikoak izan dira: *Energiaren* prezioak % 1,2 igo dira aurreko hilaren aldean, *Bitarteko ondasunenak* % 0,3 eta *Kontsumo-ondasunenak* % 0,1 orokorrean, *Kontsumo-ondasun iraunkorren* azpisektorearen % 0,4ko eta *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* azpisektorearen % 0,1eko igoeraren ondorioz. Aitzitik, *Ekipo-ondasunen* hil arteko prezioak % 1,8 jaitsi dira.

Euskal AEko Industriako Prezioen Indizea. Aldakuntza-tasak (p). 2021eko maiatza

	INDIZEA	ALDAKUNTZA %	
		2021mai / 2021api	2021mai / 2020mai
INDIZE OROKORRA	105,2	-0,1	6,0
Sektore-banaketa			
Erauzketa industriak	106,6	4,5	-2,6
Manufaktura-industria	106,3	-0,2	6,1
Elikaduraren, edarien eta tabakoaren industria	106,8	0,0	2,8
Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza	99,8	-0,2	-11,1
Zurgintza, papera eta arte grafikoak	106,9	2,5	3,1
Kokeak eta petrolioaren finzen	106,0	1,7	40,8
Industria kimikoa	114,8	1,3	4,4
Botiken fabrikazioa	113,3	1,1	3,8
Kautxu eta plastikoa, beste produktu mineral ez-metalezkoak	99,6	0,3	0,2
Metalurgia eta produktu metalikoak	109,3	-0,5	8,0
Informatikako, elektronikako eta optikako produktuen fabrikazioa	110,8	2,7	10,5
Material eta ekipa elektrikoen fabrikazioa	107,3	0,0	2,4
Beste inon sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa	103,8	-0,4	-1,0
Garraiorako materialen fabrikazioa	102,9	-3,2	-4,2
Altzariak, beste manufaktura-ind., konponketa eta instalazioa	107,5	-0,1	1,6
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	98,5	0,5	5,5
Ura	111,8	1,2	1,3
Industria-sektore handien arabera			
Kontsumo-ondasunak	107,7	0,1	3,1
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	105,4	0,4	1,6
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	108,1	0,1	3,4
Ekipa-ondasunak	105,6	-1,8	-2,0
Bitarteko ondasunak	106,9	0,3	5,2
Energia	102,9	1,2	22,6

Oinarria 2015=100

(p) Behin-behinekoak

Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Urte arteko terminoetan, 2021eko maiatzean, 2020ko maiatzaren aldean, prezio-hazkunderik handienak adar hauetan izan dira: *Kokeriak eta petrolioaren finzena* (% 40,8), *Produktu informatiko, elektronikako eta optikako fabrikazioa* (% 10,5) eta *Metalurgia eta produktu metalikoak* (% 8,0). Prezioen jaitsierarik handienak, aldiz, honako sektore hauei dagozkie: *Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza* (% 11,1eko jaitsiera), *Garraio-materialaren fabrikazioa* (% 4,2koa) eta *Erauzketa-industriak* (% 2,6koa).

Helburu ekonomikoaren arabera kontsumo-ondasun-talde handien prezioen aldakuntza, urte arteko aldirian, positiboa izan da *Energian* (% 22,6ko igoera prezioetan), *Bitarteko ondasunetan* (% 5,2koa) eta *Kontsumo-ondasunetan* orokorrean, % 3,1eko hazkundearekin, ezen *Kontsumo-ondasun ez-*

iraunkorren prezioak % 3,4 igo dira, eta Kontsumo-ondasun iraunkorrenak % 1,6. Aitzitik, urte arteko terminoetan, Ekipo-ondasunak % 2,0 jaitsi dira.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62